

ADOLFO MUÑOZ, TXIKI

**URKULLUREN GOBERNUA
ERABAKITZE-ESKUBIDEAREN ALDE DAGO;
HORI BAI, ENPRESARIENA**

**“Onartezina da gobernu batek
demokrazia sindikala gutxiestea”**

2016ko irailaren 20a



ARAU DEMOKRATIKOAK

Mugimendu sindikala beti agertu da demokraziaren alde; demokrazia sozialaren, politikoaren eta, noski, sindikalaren alde. Joko-arauak errespetatzea beti izan da aurretiazko baldintza bat, denok errespetatu beharko genuena. Baina ez da horrela izan.

Sindikalistok sobera dakigu langileriaren eskubideak eta itxaropenak hobeto zaintzen direla demokrazia sindikala errespetatzen bada. Langileek bozketan hautatzen dituzte beren ordezkari sindikalak. Gobernu-esparrutik inork ez lituzke gutxietsi beharko hauteskunde horien emaitzak.

Ondotxo dakigu zer gertatzen den demokrazia ahuldu eta suntsitzen denean, babes gabeenak ateratzen dira galduan. Kapitalarentzat, patronalarentzat, demokrazia oztopo besterik ez da. Eusko Jaurlaritzarentzat ere bai. Herri-erakundeetan parte hartzeko organoetan patronalari komeni zaiona egiten saiatua zuten; eta orain eskema hori negoziazio kolektibora ere eraman nahi dute.

1.- ZER ERABAKI DU EUSKO JAULARITZAK?

Patronalaren alde jartzea, zeren patronalak nahi duena hautatu ahal izango du solaskide, lan-baldintzak beren gogara ezartzeko. Berdin dio hautatu duten sindikatuak zer ordezkaritza-maila duen, %49koa edo %5ekoa. Nahi dutena aukeratu dezakete. Gure ustez gobernuak patronalari ematen dion laguntza hori eraso bortitza da askatasun sindikalaren aurka.

Eta zergatik egin du? Erreibindikazio sindikala eta soziala geldiarazi eta soldata-jaitsiera erraztu behar direla uste duelako, Confedebaskek uste duen bezala. Bide batez esan behar dugu Confedebaskek ez duela inoiz egiaztatu bere ordezkaritza zenbatekoa den.

Gobernuak lan- eta gizarte-prekarietatea hedatu nahi du, bere ardurapeko esparruetan egin duen bezala.

Gobernuak begi onez ikusten du negoziazio kolektiboaren estatizazioa, pobrezia ugaltzeko bada ere. Sinaturiko akordioen helburua ez da ezer "blindatzea". Madrilen euskal hitzarmenak hondatzen ahalegintzen direnekin ezin dira hitzarmen horiek blindatu. Gobernuak badaki hori horrela dela, baina bost axola zaio.

Lehendakariak dioenez, negoziazio kolektiboan akordioak lortzeko, mahaietan egon behar da. Lehendakari jauna: Zer mahaitan ez dago ELA? ELA negoziazio kolektiboko mahai guztietan dago, sektore eta enpresa guztietan. Zure gobernuak demokrazia sindikala apurtu nahi duen mahai guztietan gaude. Ez gaude El-karrizketa Sozialeko Mahaian, zure politikei eusteko mahaia delako —Lopez lehendakariak osatu zuen mahaian egon ez ginen bezala—. Mahai horretan ez gaude, kezkatzen gaituzten gauzak (fiskalitatea, prekarietatea, azpikontraten lan-esplotazioa saihesteko LHE/ILP, aurrekontuak, gizarte-prestazioak...) ez direlako mahai horretako mintzagaiak. Mahai horretara doaz diru publikoaren bila dabiltzanak bakarrik. Horixe da, ez besterik, mahai horretan sinaturiko bigarren akordioaren arrazoia.

Zure gobernuak demokrazia sindikala apurtu nahi duen mahai guztietan gaude

Bi lan-erreforma gogorren ondoren, onartezina da gobernuak joko-arauak goitik behera urratu nahi izatea. Oreka guztiak apurtuko ditu. Hori ikusita, konturatzen gara zure gobernuak pozarren geratu zela bi erreformekin; Zapateroren erreformarekin, EAJ/PNVren abstentzioari esker atera zenarekin, eta PPren erreformarekin. Azken erreforma horretan ezezkotua eman zenuten, baina orduan zuen botoak ez ziren beharrezkoak, PPK gehiengo osoa baitzuen.

2.- NORK EGITEN DU?

Gobernuak egiten du. Inolako begiramenik gabe, printzipio demokratikoak gutxienezkoak baita. Lehenengo eta behin, interesak, eta horiek bat datoz patronalaren interesekin.

Tapia sailburuak, adibidez, argi eta garbi esan du EAEko ordezkaritza sindikala aldatu nahi dela, dagoena gustatzen ez zaiolako. Hori baino gauza larriagorik esan daiteke? Tapia, gure iritziz ADEGI da, eta gobernuaren barrutik patronalarentzat egiten du lan.

Eta ari garen patronala zein da? Bada denbora ELAk bilera bat izan zuela gobernuarekin, eta gobernuak ordezkaritza batek kontatu

zigun patronalaren batzar batean egon zela, eta enpresari aleman batek “enpresaren eredu berria” azaldu ziela. Gobernuko ordezkariak, hizlari alemanaren parte hartzea entzun ondoren, pentsatu zuen “Hitler ezkertiarra goa zela”. Eta patronal horrekin egiten du bat gure gobernuak.

Gobernuak ederto daki nolakoa den bere babespeko patronala. Gobernuaren oniritzia duen Confedebaren “enpresaren eredu berria”ren oinarria oso erraza da: enpresetan ez da sindikalismorik egin behar. Elkarriketa Sozialako Mahaiaren akordio horien helburua sindikalismo borrokazalea indargabetzea da. Patronalak eta gobernuak “desgaitu” nahi dituzte sindikatu gogaikarriak, gizatasuna ezabatzeko estrategiari, lan-erreformen atzean dagoen estrategiari, aurre egiten dioten sindikatuak.

Horretan datza hain goraipatua izan den “lan-kidetza publiko-pribatua”. Eufemismo horren azpian dago helburu partekatua bat: gizarte-desberdintasunak ugaltzearekin batera eraso gupidagabea egin nahi diete identitate kolektiboak indartzen dituzten elkarteei.

Gizarte-desberdintasunak ugaltzearekin batera eraso gupidagabea egin nahi diete identitate kolektiboak indartzen dituzten elkarteei

Dena partekatzen dutela esaten dugunean, gobernuak patronalaren zerbitzura politika jartzen duela esan nahi dugu. Esate baterako, fiskalitatea. Enpresek gutxi edo ezer ez ordaintzen dute, eta zenbat eta handiagoak izan, orduan eta gutxiago. Elkarrekin diseinatzen dituzte opor fiskalak edo Enpresak Sustatzeko Sozietateak bezalako figura fiskalak. Horrek pentsarazten digu Panama ez dagoela hain urrutiti. Iruzur fiskalarekin amaitzeko, eta dirudunei ez ordaintzen uzten dieten abantailekin amaitzeko, Gobernu honi fiskalitatea berraztertzea premiazkoa dela azaldu diogunean, erantzun digute horretaz ez dagoela hitz egite-rik.

Gobernuko arduradunek hitz egiten dute-nean, zaila egiten zaigu jakitea noiz hitz egiten duten interes publikoen zaintzaileen moduan eta noiz patronaleko ordezkarien moduan.

Horregatik esaten dugu gobernu hau “erabakitze-eskubidearen alde” dagoela... patronalaren eskubidearen alde. Gobernuak ahalegintzen da gizartearen orekak galtzen, enpresarien alde. Langileek beren ordezkariak hautatzen dituztenean, zuek gutxietsi egiten dituzue. Politikan gero eta gutxiago hartzen da kontuan esandakoa, eta gero eta gehiago egindakoa.

Gobernu demokratiko batek, lehendakari jauna, ez du egin behar zureak egin duena. Ondo iruditzen zaizu ordezkariak sindikaleko %10ak %90 ordezte. Non geratuko da askatasun sindikala? Baten batek esaten badu zure alderdiaren 27 eserlekuak parlamentuan hutsaren hurrengo direla, ondo irudituko litzaizuke? Ba, hori bera egin nahi dute gurekin.

Gobernu hau “erabakitze-eskubidearen alde” dagoela... patronalaren eskubidearen alde

Atzera egin, eta errespetatu euskal langileen botoa! Eskakizun hori gutxienezkoa da. Zure gobernuak duen zilegitasuna ez da eskubide nahikoa lan-munduan dinbi-danba sartzeko, eta sindikatuok gure hauteskundeetan lortzen dugun zilegitasun sindikala suntsitzeko. Gobernu demokratiko batek aukera bakarra du: langileek hauteskunde sindikaletan diotena errespetatzea.

Atzera egin, eta errespetatu euskal langileen botoa!

3.- POLITIKA FEUDAL MODUKO BAT JASATEN DUGU

Gero eta sarriago entzun behar izan diegu gobernuko kideei esatea sindikatuok —sindikatu batzuok— ez dugula eskubiderik zenbait gairen inguruan hitz egiteko, “hauteskunde politikotatik aurkezte ez garelako”. Onartezina da politika eta partaidetza soziala ulertzeko modua hori. Pentsamolde hori gizarte feudal bati dagokio, non bakan batzuek denoi dagozkigun gauzak erabakitzen dituzten, eta besteek men egin behar dute isil-isilik. Ez gaude ados. Gure jokabidea ez da izango konpartsa batena.

Sindikatuok eskubide osoa dugu gure proposamenak aurkezteko, gai sindikal, sozial eta politikoei buruz (fiskalitatea, aurrekontuak, osasuna, hezkuntza, AHT, finantza-sistema, Kutxabank, industria-politika...). Gure eskubidea da, eta egin beharra ere bai. Bitxia da guri isiltzeko eskatzen diguten politikari horiek ez eskatzea gauza bera patronalari. Patronalari ez diote isiltzeko eskatzen, ez diote eskatzen hauteskundeetara aurkezteko. Agian, horrela hitz egiten dutenak patronaleko ordezkari ezin hobeak direlako.

Gure jokabidea ez da izango konpartsa batena

Ez dira adierazpen solte batzuk. Iritziak emateko, proposamenak aurkezteko eta mobilizazioak bultzatzeko eskubidea guri ukatzeko argudioak Confebaskek azaldu zituen berberak dira, ELAri eta LABi sindikatu-izaera kentzen saiatu zenean.

Confebaskek sindikatu-izaera kendu nahi zigun, eta orain gobernuak hauteskunde sindikalen emaitza baliogabetu nahi du.

Confebaskek sindikatu-izaera kendu nahi zigun, eta orain gobernuak hauteskunde sindikalen emaitza baliogabetu nahi du

4.- ERABAKI HORI EZ DA MADRILEN HARTUKO

Hego Euskal Herrian hartuko da. Gobernuak egin duena esangura sindikal, sozial eta politikoa ditu. ELAk eta LABek eztabaida garrantzitsua izan dugu azken bi hilabeteotan.

Gai sindikala ezin da amaitutzat jo esanez gai “konplexua” dela. Hartu nahi al da mintzagai ala ez? Alderdi politikoak ezin dira geratu eztabaidatik kanpo. Demokrazia sindikalaren alde edo kontra agertu behar da. Gobernua kontra agertu da... Eta gainerako alderdiak? Harrigarria da, hauteskunde-kanpainan murgildurik gaudela, eta gure herriko politikariek uko egin izana hain gai larri horretaz eztabaidatzeari.

Ez al dakite, patronalak nahi duenarekin akordioak egiterik badauka, lan-baldintzak lorrin-duko direla? Patronala mugimendu sindikala are gehiago zatikatzen saiatuko da. Kanpainan ezin dira ezer esan barik geratu hain larria den gai horren aurrean. Denei eskatu diegu iritzia emateko, eta ez dute eman. Zergatik?

Demokrazia sindikalaren alde edo kontra agertu behar da

5.- SINDIKALISTA INGELESA

Orain dela urtebete baino gehiago sindikalista ingeles batek zera esan zigun: “20 urte behar izan genuen Thatcher-en ekarpenaz konturatzeko”. Thatcher zapalgailu bat izan zen, lan- eta gizarte-eskubideen eta identitate kolektiboen zapalgailua.

Orain salatzen dugun hau thatcherismoa da, euskal labelarekin.

Nahikoa da Eusko Jaurlaritzak 2014ko irailean prestatu zuen dokumentua irakurtzea. Orduan eginkizun bat aitortu zioten mugimendu sindikalari. Gure “eginkizuna saihestezina” zen — haien esanetan —, eta ez zen besterik gobernuaren politikak geure egitea baino. Denok ezagutzen ditugu gobernuaren politikak: egitura-doikuntzak, murrizketak, enplegu-suntsipena, bere ardurapeko esparruetan negozioazio kolektiboaren eskubidea baztertzea, behartsuenei prestazio sozialak gutxitzea... Eta gobernuaren politikari men egiten ez diotenari zigorra ezarriko diote.

Doikuntzak eta murrizketak ez dira amaitu. Haiek ere badakite hori. Bide horretatik jarraituko dugu.

Thatcher-ek bezala, kapitalismoari aurre egiten dioten proiektu kolektiboak suntsitu nahi dituzte, haien politikei oposizioa egiten dugunok suntsitu nahi gaituzte. Baina guk, ELAk eta LABek, Euskal Herri zuzen eta subirano baten helbururako, langileria bizi eta borrokazale bat behar dugu.

Ez dute lortuko.

Orain salatzen dugun hau thatcherismoa da, euskal labelarekin